

Elantxobeko herritarrok, gaur kanpotik etorri zareenok, Euskaltzaindiko kideok, egun on eta ondo etorri guztioi:

Ez da handia gure herria, baina polita bai. Edozelan ere, bere txikitasunean, herriko seme handiak izan ditu. Andima Ibiñagabeitia, Gorgonio Erreterria, Antonio Ruiz de Azua "Ogoñope", Aita Manuel Arriandiaga edo Imanol Berriatua, adibidez. Ez da harrokeriagatik, baina seguru asko ez da egongo Euskal Herri osoan Elantxobe lako beste herri asko, euskararen eta euskal literaturaren alde horrenbeste pertsona, eta maila horretakoak eman dituenik.

Gure artean izan ziren baina gaur ez dagoz gugaz. Hilak izateak baina, ez dau esan gura ahaztuak doguzanik. Gaur Imanolen gomuta ekarri dogu, zertzuk egin zituen gogoratzeko, haren herrikideak garelako beragatik pozik sentitzeko.

Imanolek, Andimak, Gorgoniok, Antoniok, Manuelek... guztiek bide bat markaturik itxi deuskue, eta hortixek segitu beharko dogu euskarak, euskal kulturak eta bertoko tradizioak bizirik segitzea gura izanez gero.

Eskerrik asko guztioi, hona etortzean Imanolen eta Elantxobe herriaren omenaldian parte hartu gura izan dozuelako.

Elantxoben, uztailaren 19an
Koldo Olagibel, alkatea